BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

229

AGINDUA, 2014ko abenduaren 22koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztu den espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko abenduaren 19an, Herri Administrazio eta Justizia Sailean jaso da Donostiako «Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaera, «Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa» erakundearen transformazioaren ondorioz. Eskaerari espedienteko agiriak erantsi zaizkio.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoak bilkura egin du, fundazioaren helburuak zilegi eta interes orokorrekoak direla eta fundazioa ekonomikoki bideragarria dela egiaztatzeko, eta 2014ko abenduaren 22an fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Hirugarrena.– Fundazioaren estatutuetako 6. artikuluak ezartzen duenaren arabera, fundazioak gizarte-helburua izango du, eta bere jarduera nagusia Gizarte Ekintza landu eta garatzera eta bere ondarea eta, ondorioz, «Kutxabank, S.A.» erakundean izango duen partaidetza behar bezala kudeatzera bideratuko du. Izan ere, «Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa» erakundeak bere finantza-jarduera «Kutxabank, S.A.» banku-erakundeari transferitu zion.

Laugarrena.– Estatutuetako 2. artikuluak xedatzen duenaren arabera, fundazioaren egoitza soziala Donostiako Garibai kaleko 20-22 zenbakietan dago.

Halaber, estatutuetako 1. artikuluarekin bat etorrita, fundazioak batez ere Gipuzkoako Lurralde Historikoan egingo du bere jarduera. Hala eta guztiz ere, patronatuak horrela erabakitzen badu, bere jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetara eta, hala badagokio, beste lurralde batzuetara ere zabaldu ahal izango du.

Bosgarrena.– Fundazioaren hasierako dotazioa 30.000 eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 37.1.c) artikuluak. Erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak onartu du.

«Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa» erakundearen ondarearen parte izango dira, baita ere, «Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa» erakundeak dituen eta ekonomikoki baliozta daitezkeen ondasun eta eskubide guztiak, banku-fundazioaren izaera juridikoa hartzeko unean zituenak eta ondoren ere eskura ditzakeenak.

Seigarrena.– «Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa» erakundearen estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, patronatua gutxienez bederatzi kidek eta gehienez hamabost kidek osatuko dute. Patronatuak, muga horien barruan, patronatu hori osatuko duten kideen kopuru zehatza ezartzeko eskumena izango du. Kide horiek dohainik beteko dituzte euren karguei dagozkien egitekoak, fundazioaren estatutuetan jasotakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Hasierako patronatua, fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, kide hauek osatuko dute, Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen 39.3 artikuluan jasotakoa dela bide:

• Transformatutako erakundearen erakunde fundatzaileak, fundazioaren berezko patronoak; horien karguaren indarraldia mugagabea da. Erakunde horiek euren ordezkariak izango diren pertsona fisikoak izendatu beharko dituzte, funtzionatzeko dituzten barne-arauen arabera. Erakunde horiek honako hauek dira:

– Gipuzkoako Foru Aldundia.

– Donostiako Udala.

• Banku-fundazioaren esparruan interes kolektiboak ordezkatzen dituzten edo errotuta dauden erakundeak. Karguaren indarraldia 2018ko urriaren 24ra arte:

– «AFAGI, Gipuzkoako Alzheimerdunen eta Bestelako Dementziadunen Senitartekoen eta Lagunen Elkartea»; ordezkaria: Koldo Aulestia Urrutia jauna.

• Banku-fundazioaren gizarte-helburuak betetzearekin lotutako arloetan edota banku-fundazioak inbertsio garrantzitsuak dituen sektoreetan (finantza-arlokoak ez direnetan) aintzatetsitako ospe profesionala daukaten pertsona independenteak. Karguaren indarraldia 2018ko urriaren 24ra arte:

– Antonio Campos Illarramendi jauna. Ordezkoa: Carmen Solórzano Sánchez andrea.

– José-Miguel Martín Herrera jauna. Ordezkoa: Eduardo Placeres Pascua jauna.

– Blanca Tejada Manso de Zúñiga andrea. Ordezkoa: Almudena Gandasegui Anglada andrea.

• Finantza-arloan berariazko ezagutzak eta esperientzia dituzten pertsonak: Karguaren indarraldia 2018ko urriaren 24ra arte:

– Xabier-Gotzon Iturbe Otaegui jauna. Ordezkoa: Manuel Beraza Olabarrieta jauna.

– Carlos Tamayo Salaberria jauna. Ordezkoa: Urko Bidegain Folgado jauna.

– Guillermo Echenique González jauna. Ordezkoa: Ángel García Ronda jauna.

– Miren Karmele Aguirrezabala Mundiñano andrea. Ordezkoa: José María Bermejo Vega jauna.

– Borja García Santa Cruz jauna. Ordezkoa: Gonzalo Iñarra Rodríguez jauna.

Izendatutako guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio espediente hau agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal

Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsonak sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez. Lege eta erregelamenduzko manuen arabera egin da Fundazioaren eraketa; eta, zehazki, Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak eta oro har kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea –egun honetan eta F-382 erregistro-zenbakiarekin–: Donostiako «Fundación Bancaria Kutxa- Kutxa Banku Fundazioa» erakundea, «Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa» erakundearen transformazioaren ondorioz.; baita patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatu horretako kideak zazpigarren aurrekarian agertzen dira, Guadalupe-María-Inmaculada Adánez García notarioaren aurrean 2014ko urriaren 31n egiletsitako eskritura publikoan jasotako baldintzen arabera (protokolo-zenbakia: 1410); eskritura horren bidez, publiko egiten dira 2014ko urriaren 24an hartutako erabakiak.

Bigarrena.– Erregistroetan dauden eta aurreko atalean aipatutako inskripzioarekin bateraezinak diren idazkunak ezerezteko eskatzea.

Hirugarrena.– Fundazio hori, helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 22a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.